

Milesker Segolen

M

ila esker Segolen, nahiz lehendakari hauteskundera ez duzun irabazi, kanpaina guztian zehar, lehiaketa eta zirriki moralaz zitzikatu jendar-tean kasik ahantziak ziren elkartasun, justizia edo berdintasun hitzak hain ardura eta hain zinez ahozkatu. Ez ditut entzun Sarkozy kapital-jabe handien papagaioaren ezpainetan, alabaina Hungriako errege autokratarentzat, bi *zitrói doratí* klikatu artean, aitaren autoritate berreskuratuaren, Frantziaren harrotasunaren, lanaren indarren askatzearen eta hortzetako protesien alorrek baitzituen tematsuki jorratu: lana, patria, familia, xatar urrunduz troxaturiko Vichyko ideologia.

Mila esker Segolen, alderdi sozialistako elefanteak igande arratsean %46,96 boto kopurua erdiesteagatik zurekiko eskerrik ez eta datozen asteetan barne-kritika kudeatuko dutenean, bozkaldiaren galtzea zure bizkar jarriko duten arren, Frantziako ezkerreko jendailarekilako –gurekin, hots– irekitasunaren eta etorkizunaren oihala brodatzen jakin duzulako eta bardako zure irriak lotura hori ospatzen zuela iruditzen zait. Bizkitartean, arratseko zortziak irian Baionan isiltasun hil astuna hedatzen zen eta hamarrak aldera, Tolosan Capitola plazan milaka gazteek oihukatzen zuten: “*Sarko facho le peuple aura ta pean...*”

Eskerrik hanitx Segolen, emazteki hutsa zinelako botoa zuri eman ez dizutenek horrelakorik onartuko ez baldin badute ere, emazteen itzala zuhur eramateagatik: duina zinen, grabea zinen, kokina zinen, bizia zinen. Batzuetan ederra eta argitsua aurkitu zaitut. Kazetariak, Sarkozyri ez bezala, askotan eskatu dizute emazte izanez, gobernatzeko egoki zinatekeenez eta Alliot-Marie andereak kilkiratu zuen: “Nolako konfiantza ukaiten ahal dugu ideia gonaz adina aldatzen duen bategan?”. Eta goizon lant-



GAIZKA IROZ

Itxaro Borda

Errro

Bastevetxea

kian, espainol errefuxiatu ohi batekin, Dolores Ibarruri *Pasionaria* gogoratu dugu, zutaz eta bezperako ondorioetaz mintzatzerakoan.

Mila esker Segolen, Historia ez manipulatzeari Sarkozyren antzera, honek Jaures eta hemeretzigarren mende bukarako Barres nazionalista uztartu zituen arraiki, Blumen ontasuna ebatsi zigun, ezkerren

altxor ideologikoa pirateatu zuen, bozkatzaleei sinestarazteko ezkerrik eta eskuinik ez zela gehiago. Frantzia anitza eta dinamiko itxuratzen zenuen, ez Neuillyko aberaskumearen pare, nazionalista, oligarka, zuria eta gizonkoia –non bada ezkonduko dira Frantziako gay eta lesbianak bertan eskubiderik ez badute?–. Mendekua eta gorrotoa disimulatzuten zituen, amodioa eta Wojtíla aita sailduaren “*n'ayez pas peur*” aipatuz zetorkion hitzaldi zurrungatsuen perpausetan: ezberdinarekiko herra eta sozial mendekua oroz bat.

Mertzi biziki Segolen, sobera maiz errepikatu delarik botereen mutil dabiltzan mass-medietan, benetako programarik ez zenuela, demokrazia zurkaitzeko egitarau zehatza edukitzeaz. Sarkozyk airea inarrosi du, tarrapataka martxan jarriko eta bere diskurtsoen helburuak direnak –xehailak– errautsiko dituen nazional-liberalismoaren haize-parpaila ezkutatzeko eta amets nazional berritu baten ekoizteko. Sarkozy dator, krisi gorrian omen daukan –Chalçon baino hobe bizi gara Frantzian eta Euskal Herrian ere horretara joanez– Frantzia berrantolatzeko duen lantegi gisa kontsideratuz: plan sozial drastikoen aiduru gaude denak, ahulena dardarka.

Bush, Blair eta Aznar hiruak biltzen ditu bere baitan Sarkozyk, prentsa zoratuaren arabera: hainbat gaizto guretako, ez dea hala Angel eta Josi? Anartean zu, Segolen baizik ez zinen, baina Karcherkozy baino gerokoiagoa: milesker zuri... ■

Bush, Blair eta Aznar hiruak biltzen ditu bere

baitan Sarkozyk, prentsa zoratuaren arabera:

hainbat gaizto guretako, ez dea hala Angel eta Josi?

Anartean zu, Segolen baizik ez zinen, baina

Karcherkozy baino gerokoiagoa: milesker zuri...